Es una calle en la que el tránsito rodado se reduce a los coches que buscan aparcamiento y pasan varias veces por la misma (incluso aparcando en doble fila sobre el bidegorri) o que van a dar la vuelta hacia Paseo Colón para poder volver al centro, que actualmente hace un efecto embudo del tráfico de Gros, cuando además se puede hacer el giro en la siguiente manzana, en la plaza Lapurdi, para hacer el mismo recorrido.

Kale hori oinezkoentzat jarrita sortuko den trafikoa hobetu daiteke, Agirre Miramon kalearen noranzkoa aldatuta, Grosetik irteteko Lapurdi plazaraino joan beharrik izan ez dadin.

El tráfico que pudiera generar la peatonalización de esta calle, podría mejorarse además cambiando la dirección de la calle Aguirre Miramón, de manera que para salir de Gros no haga falta ir hasta la plaza Lapurdi.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari har dezala Ramon y Cajal kalea ahalik eta lasterren oinezkoentzat jartzeko konpromisoa, eta sar dezala Donostiako kaleak oinezkoentzat jartzeko udal-planean.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari Agirre Miramon kaleko trafikoaren noranzkoa aldatzeko, bizilagunak errazago atera ahal izan daitezen Grosetik, Lapurdi plazaraino joanda auzoari buelta osoa eman beharrik izan gabe, eta aparkaleku bila dabiltzanek ere hor jiratzeko aukera izan dezaten, Zurriola hiribide osoa zeharkatu beharrik izan gabe, auzoko trafikoa arintze aldera. Era berean, eskatzen dio proiektu hori gauzatzeko aurrekontu-partida bilatzeko.

Donostia, 2022ko otsailaren 21a

Mikel Lezama Zubeldia
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a adoptar el compromiso de peatonalizar la calle Ramón y Cajal lo antes posible dándole prioridad, e incluirla en el Plan de Peatonalizaciones Municipal.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a cambiar el sentido del tráfico de la calle Aguirre Miramón para facilitar la salida de Gros de los vecinos sin necesidad de dar toda la vuelta al barrio hasta la plaza Lapurdi e incluso a aquellos que buscan plaza de aparcamiento a girar sin tener que recorrer toda la Avenida de la Zurriola haciendo más fluido el trafico en el barrio, buscando para ello una partida presupuestaria para poder ejecutarlo.

En San Sebastián, a 21 de febrero de 2022

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marta Huarte Paño andreak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marta Huarte Paño y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, kale egoeran dauden pertsonentzako harrera baliabideen irekieraz hiriko hainbat eragilek egindako eskaerari buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 10eko gauean, 60 herritar inguru elkartu ziren Bulebarreko kioskoan, bertan lo egiteko eta protesta egiteko, Donostiako Udalak hotzerako aterpetxea gradu jakin batzuetatik aurrera irekitzeko hartutako erabakia dela eta. Ekimena Herritarren Harrerarako Saretik abiatu zen, eta Kaleko Afari Solidarioak elkarteko kideak eta aldarrikapen hori babestu nahi izan zuten beste herritar batzuk ere elkartu ziren.

Eragileek eskaera zuzena egin zioten Udal Gobernuari: izotz arriskua dagoenean irekitzen den baliabidea negu osoan zabaltzeko (martxora arte), 9 edo 10 gradu egiten dituenean edo euria egiten duenean, kalean lo egitea oso gordina delako.

Izan ere, urtarrilaren 14an, 100 pertsona hartzeko gaitasuna duen errekurtso hori ireki

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la demanda de diversos agentes de la ciudad sobre la apertura de recursos de acogida para personas en situación de calle.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 14 de febrero de 2022.

JUSTIFICACIÓN

La noche del 10 de febrero, alrededor de 60 ciudadanos y ciudadanas se juntaron en el kiosco del Bulevar, para pasar allí la noche, a modo de protesta, debido a la decisión tomada por el Ayuntamiento de San Sebastián de abrir el local del frío, en el Albergue de Ondarreta, a partir de determinados grados. La iniciativa partió de la Red de Acogida Ciudadana, y reunió a miembros de la asociación Cenas Solidarias de Calle y otros ciudadanos y ciudadanas que quisieron apoyar esta reivindicación.

Los agentes hicieron una solicitud directa al Gobierno Municipal: que este recurso, que en la actualidad se abre cuando hay riesgo de heladas, se abra durante todo el invierno (hasta marzo), cuando hace 9 o 10 grados y cuando llueve, ya que dormir en la calle en esas circunstancias resulta muy crudo.

El 14 de enero, se abrió este recurso, con capacidad para 100 personas, en el Albergue

egin zen, La Sirena aterpetxean, nahiz eta irekiera-protokoloak eskatzen dituen muturreko hotz-baldintzak betetzen ez ziren. Urtarrilaren 14, 15, 16 eta 17ko gauetan 57 pertsona joan ziren baliabide horretara. Hilaren 18an, itxi egin zen eta pertsona horiek guztiak berriz ere kalera itzuli ziren. Gero, urtarrilaren 20an ireki zen berriro errekurtsoa, eta 23an itxi egin zen, hotz handia egin arren. Ondoren, irekitzen eta ixten joan da, egun batetik bestera, kale egoeran lan egiten duten eragileen harridurarako.

EH Bilduk bat egiten du kolektibo sozial ugarik eta Donostiako Hiritarron Harrera Sareak egindako eskaerarekin. Gogora dezagun konfinamendu garaian frogatu zela Udala gai dela lan hori bere gain hartzeko, gauero etxerik gabeko 100 pertsonak baino gehiagok pasatu baitzuten gaua bertan. Eta gogoratu behar da, era berean, Arartekoak zerbitzu hori ematen jarraitzea gomendatu zuela konfinamendua igaro ondoren, zerbitzu horrek pertsona horien bizitzan eta gizartean sortu zuen onura argudiatuz.

Udal Gobernuko delegatua batzordean interpelatu dugunean, neguko baliabidea irekitzeko protokoloa bere horretan mantenduko dutela adierazi du: hau da, kostaldean izotz arriskua dagoenean eta Donostiako batez-besteko tenperatura 0 gradu azpikoa denean.

Kale egoeran dauden pertsonentzako baliabide gehiago jartzearen aurrean ezezkoa emateko erabiltzen diren argudioen artean bi nabarmendu behar dira: dei efektua eta gizarte zerbitzuen legedia betetzen ari dela. Alde batetik, datuek ez dute inolako dei efekturik adierazten; esate baterako, auzoetako kaleko afari solidarioen onuradun kopurua egonkor mantentzen da astetik astera. Bestetik, gizarte zerbitzuen legediak akordio politikoetan

La Sirena, aunque no se cumplían las condiciones de frío extremo que exige el protocolo de apertura. Las noches de los días 14, 15, 16 y 17 de enero, 57 personas utilizaron este recurso. El día 18, el local del frío se cerró, y todas estas personas volvieron a la calle. Posteriormente, el recurso se reabrió el 20 de enero, y se cerró de nuevo el 23, a pesar del intenso frío. Posteriormente se ha ido abriendo y cerrando, de un día para otro, para sorpresa de las y los agentes que trabajan con personas en situación de calle.

Eh Bildu se suma a la petición de muchos colectivos sociales y de la Red de Acogida Ciudadana de San Sebastián. Recordemos que, durante el confinamiento, se demostró que el Ayuntamiento es capaz de asumir esta tarea, ya que cada noche pernoctaron en la citada instalación más de 100 personas sin hogar. Y también hay que recordar que el Ararteko recomendó que, tras el confinamiento, se continuara prestando este servicio, puesto que generó un beneficio en la vida de estas personas y en la sociedad.

Interpelamos al delegado del Gobierno Municipal en la Comisión, el cual nos indicó que se mantendrá el protocolo de apertura de este recurso invernal, es decir, que se abrirá cuando exista riesgo de hielo en la costa y la temperatura media en San Sebastián sea inferior a 0 grados.

Entre los argumentos que se esgrimen para negarse a poner más recursos para las personas en situación de calle, destacan dos: uno es el efecto llamada y el otro, el hecho de que se está cumpliendo la legislación de servicios sociales. Sin embargo, debemos señalar que, por un lado, los datos no indican ningún efecto llamada; por ejemplo, el número de beneficiarios de las cenas solidarias en la calle se mantiene estable de semana en

oinarritutako minimoak jasotzen ditu, borondatearekin egungo errealitatera egokitu eta alda daitezkeenak.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko web orrialdean argitaratu dezala Ate Irekien Zerbitzua noiz ireki eta itxi behar den, herritar guztiek horren berri unean bertan izan dezaten.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Ate Irekien Zerbitzua irekitzeko protokoloa aldatu dezala, zerbitzua negu osoan irekitzeko (azarotik martxora arte) Donostian era egonkorrean kale egoeran dauden pertsona kopuruari arreta eskaintzeko nahikoak diren plazekin.

Donostian, 2022ko otsailaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

semana. Por otro lado, la legislación de servicios sociales recoge mínimos basados en acuerdos políticos que, si existe voluntad, pueden adaptarse a la realidad actual y modificarse.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a publicar en la página web del Ayuntamiento las fechas de apertura y cierre del Servicio de Puertas Abiertas, a fin de que todos los ciudadanos y ciudadanas tengan conocimiento de ello en el mismo momento en el que se sabe que se va a abrir.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a modificar el protocolo de apertura del Servicio de Puertas Abiertas, y a que oferte plazas suficientes para que se pueda abrir durante todo el invierno (de noviembre a marzo) y se pueda atender a todas las personas que se encuentran en situación de calle, de forma permanente, en San Sebastián.

San Sebastián, 17 de febrero de 2022

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as, D.ª Olaia Duarte López, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako Santa Barbara auzoko azpiestazio elektrikoa kentzeko aukerari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Lurralde Garapeneko batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

**II.2.5. Moción de control, presentada por el grupo EH BILDU, sobre la posible supresión de la subestación eléctrica del barrio Santa Bárbara de Altza.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada el 14 de marzo de 2022, en la Comisión de Desarrollo del Territorio.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko urtarrilaren 28an, Donostiako Udalbatzak onartu zuen EH Bilduren mozio bat eskatzen diona Eusko Jaurlaritzako Industria sailari memoria txosten bat helaraz diezaiola, erakusten dituena Altzako Santa Barbara azpiestazio elektrikoaren inguru hurbilean egun dauden eremu magnetikoak eta, oro har, auzotarren osasunean eragin ditzakeen arrisku egoerak. Memoria horrekin batera, eskatzen dio helarazteko txosten bat instalazio elektrikoa egungo kokapenetik aldentzeko aukerak, eta horretarako beharko diren urratsak eta baliabide ekonomikoak zehaztuta.

Ekainean, EH Bilduk batzordean galdetu zion Udal Gobernuari jasoa ote zuen Eusko Jaurlaritzako Industria sailaren erantzunik, eta ezezkotan, erantzuna eskatua ote zion. Udal Gobernuaren izenean erantzuna eman zuen zinegotziak adierazi zuen otsailaren 1ean bidali zela eskaria, eta hortaz, bost hilabete igarota “goizegi” zela erantzun bat espero izateko. Geroztik, ordea, ez dugu beste berririk izan iazko urtarrilean Udalbatzak onartutako mozioaren jarraipenaren inguruan.

Batzordean EH Bilduk Udal Gobernuari galdetu zion jaso ote duen Eusko Jaurlaritzaren erantzunik, eta erantzunik jaso ez badu, eskatu ote dion erantzunik Industria sailari. Gainera, eta berriki jakin dugunez Udal Gobernuak bertan behera utzi duela azpiestazioaren inguruan eraikitzekoa zen aparkalekuaren egitasmoa, eta azpiestazioaren eremu bera horretarako egokia izan daitekeela ohartuta, iritzia eskatu genion horren inguruan. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen ez dutela Industria sailaren erantzunik jaso eta eskatu ere, ez diotela eskatu. EH Bilduren

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 28 de enero de 2021, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián aprobó una moción presentada por EH Bildu, por medio de la cual se solicita al Departamento de Industria del Gobierno Vasco el envío de una memoria que reflejara los campos magnéticos existentes actualmente en el entorno próximo a la subestación eléctrica Santa Bárbara de Altza y, en general, las situaciones de riesgo que presenta para la salud de los vecinos. Junto con esta memoria, le solicita también que envíe un informe sobre la posibilidad de alejar la instalación eléctrica del emplazamiento actual, detallando los pasos y medios económicos necesarios para ello.

En junio, EH Bildu preguntó, en comisión, al Gobierno Municipal si había recibido respuesta del Departamento de Industria del Gobierno Vasco y, en caso contrario, si la había solicitado. La persona concejala que contestó en nombre del Gobierno Municipal manifestó que la solicitud fue enviada el 1 de febrero, por lo que, al haber transcurrido cinco meses, era “demasiado pronto” para esperar una respuesta. Sin embargo, desde entonces no hemos tenido noticias sobre el seguimiento de la moción aprobada por el Pleno en enero del año pasado.

En la comisión, EH Bildu preguntó al Gobierno Municipal si ha recibido respuesta del Gobierno Vasco y, si no la ha recibido, si ha solicitado una respuesta al Departamento de Industria. Además, y como recientemente hemos sabido que el Gobierno Municipal ha abandonado el proyecto de aparcamiento que se iba a construir en el entorno de la subestación y, conscientes de que dicho entorno de la subestación puede ser adecuado para ello, se le solicitó su opinión al respecto. La persona concejala delegada contestó que no han recibido respuesta del

iritziz, ordea, aski denbora igaro da Eusko Jaurlaritzari erantzun bat eskatzeko.

Gainera, zinegotziak adierazi zuen ez zuela aski informaziorik azpiestazioaren eremua aparkatzeko egokia izan daitekeen jakiteko, aztertu egin beharko zela lur horien egoera. Erantzun horrek bete-betean talka egiten du Altzan egon daitezkeen lur kutsatuen mapa egiteko EH Bilduren proposamenari Udal Gobernuak emandako ezezkoarekin. Jakinik Felix Iranzo kaleko aparkalekuaren egitasmoa bertan behera utzi duela Udal Gobernuak, eta Tomasenekoa desegin zuenetik Santa Barbarako eta Arriaga Berriko auzotarrek aparkatzeko arazoak dituztela, EH Bilduk uste du beharrezkoa dela aukera hori ere aztertzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eska diezaiola Eusko Jaurlaritzaren Industria sailari erantzuteko Donostiako Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an onartu eta otsailaren 1ean Udal Gobernuak bidali zion eskaria.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala bilera ireki bat Arriaga Berri eta Santa Barbara auzuneetako bizilagunekin, Eusko Jaurlaritzaren erantzuna izatean, azpiestazio elektrikoa tokiz mugitzeko aukeren edo zailtasunen inguruan azalpenak emateko, eta eremu horren erabilera posibleen inguruan iritziak jasotzeko.

Departamento de Industria, y que tampoco la han solicitado. Eh Bildu considera, sin embargo, que ha pasado bastante tiempo para solicitar una respuesta al Gobierno Vasco.

Además, la persona concejala manifestó que no disponía de información suficiente para saber si la zona de la subestación es apta para aparcar, que habría que analizar el estado de estos terrenos. Esta respuesta choca frontalmente con la negativa del Gobierno Municipal a la propuesta de EH Bildu de elaborar un mapa de suelos contaminados en Altza. Conscientes de que el Gobierno Municipal ha suspendido el proyecto de aparcamiento en la calle Felix Iranzo y de que, desde que se desmanteló el de Tomasene, los vecinos de Santa Bárbara y Arriaga Berri tienen problemas para aparcar, EH Bildu considera necesario estudiar también esta posibilidad.

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que solicite al Departamento de Industria del Gobierno Vasco que responda a la solicitud aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián el 28 de enero de 2021 y que le fue remitida por el Gobierno Municipal el 1 de febrero.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que organice una reunión abierta con los vecinos y vecinas de los barrios de Arriaga Berri y Santa Bárbara, cuando obtenga la respuesta del Gobierno Vasco, para explicar las posibilidades y dificultades de cambiar de lugar la subestación eléctrica y recoger opiniones sobre los posibles usos de este espacio.

Donostian, 2022ko otsailaren 17an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 17 de febrero de 2022

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 - EAJ-PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 - EAJ-PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolaren inguruari buruzkoa.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el entorno de la ikastola Arantzazuko Ama de Martutene.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público el 14 de febrero de 2022.

JUSTIFICACIÓN

Urtarrilaren 24an 13:10ak inguruan Martutenerako norabidean zihoan auto bateko gidariak kontrola galdu zuen eta Arantzazuko Ama ikastolaren hesiaren kontra joan zen.

Kolpeak ez zuen inor zauritu, eta ibilgailua ikastetxeko jolastokiko hesian sartuta geratu zen, sarrera nagusitik metro gutxira.

Azken istripu honek Martuteneko bizilagunen eta Arantzazuko Ama ikastolako komunitatearen aspaldiko kezka areagotu zuen eta Donostiako Udalari neurriak hartzeko eskatu zioten.

Guraso elkarteak aspaldi eginda zuen eskolaren ingurua baretzeko eskaera. Jakina baita Arantzazuko Ama errepidez inguraturik dagoela lau alboetatik, horrek dakarren arriskuaz. Eraikinaren aurrealde osoa zeharkatzen duen errepide nagusia (Martutene pasealekua, Donostia Astigarragarekin eta Hernanirekin lotzen duen errepide zaharra) bihurgune handi baten ondoren hasten den zuzengunea da. Horren ondorioz, zentroko sarrerak eta irteerak ez dira seguruak eta Udalari maiz eskatu diote segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, hala nola, bihurgunearen ondoren eskola-ingurunean sartzen dela adierazten duen seinale egokia eta abiadura-murrizketa egokia. Baita espaloia eta errepidea bereizten dituen hesi bat ere.

Otsailaren 4an Arantzazuko Amako ikastolako eta guraso elkarteko ordezkariak Udal Gobernuaren ordezkaritza batekin elkartu ziren eskola inguruko neurriei buruz hitz egiteko. Bilera horretan ikastola eta guraso elkartearen eskaera izan zen eskola ingurua oinezkoentzat

Sobre las 13:10 horas del día 24 de enero, el conductor de un turismo que circulaba hacia Martutene perdió el control y se dio contra el vallado de la ikastola Arantzazuko Ama.

El golpe no hirió a nadie, pero el vehículo quedó incrustado en la valla del patio del colegio, a pocos metros de la entrada principal.

Este último accidente acentuó la antigua preocupación de los vecinos de Martutene y de la comunidad de la ikastola Arantzazuko Ama, quienes pidieron al Ayuntamiento de San Sebastián que adoptara medidas.

Hace tiempo que la Asociación de Padres y Madres de Alumnos y Alumnas solicitó que se calmase el tráfico en el entorno de la escuela. Y es que, como es sabido, Arantzazuko Ama se encuentra rodeada por carreteras, por todos los lados, con el peligro que ello conlleva. La carretera principal que atraviesa toda la parte delantera del edificio (Paseo de Martutene, antigua carretera que une San Sebastián con Astigarraga y Hernani) es una recta que arranca tras una gran curva. Como consecuencia de ello, las entradas y salidas del centro no son seguras, y se ha solicitado a menudo al Ayuntamiento la adopción de medidas que garanticen la seguridad, tales como la colocación, tras la curva, de una señal adecuada que indique que se está entrando en una zona escolar, así como reducir la velocidad tanto como sea necesario. También se debería colocar una barrera que separe la acera de la carretera.

El 4 de febrero, representantes de la ikastola Arantzazuko Ama y de la Asociación de Padres y Madres se reunieron con una delegación del Gobierno Municipal para hablar de las medidas a adoptar en torno a la escuela. En dicha reunión, se solicitó por parte de la ikastola y de

egokitzea, baina Udal Gobernuak hori ez duela egingo adierazi zuen. Hortaz, bitarteko neurri batzuk hartuko zituela adierazi zuen trafikoa baretzeko, hala nola, seinaleztapen berria jartzea, semafororen bat, badena jartzeko aukera edo autoen abiadura markatzen duen seinalea.

la asociación de padres y madres la peatonalización del entorno de la escuela, pero el Gobierno Municipal manifestó que no lo haría. Sin embargo, indicó que iba a adoptar una serie de medidas intermedias para calmar el tráfico, tales como la instalación de una nueva señalización, algún semáforo, quizá colocar un badén o una señal que indique la velocidad que deben respetar los vehículos.

Arantzazuko Ama ikastolarentzat eta guraso elkartearentzat, neurri horiek ez dira nahikoak segurtasuna bermatzeko, eta haien eskaerarekin aurrera egiteko asmoa dute. Hau da, eskola ingurua oinezkoa izan dadin eskatzen jarraituko dute. Helburua lortu bitartean, eremua orain baino seguruagoa izan dadin, espaloian hesi bat jartzea eta tona handiko trafikoa desbideratzea eskatu dute.

Para la ikastola Arantzazuko Ama y la Asociación de Padres y Madres estas medidas no son suficientes para garantizar la seguridad, y, por ello, tienen intención de continuar con su solicitud. Es decir, seguirán pidiendo que el entorno de la escuela sea peatonal. En tanto no se logre el objetivo, solicitan la instalación de una valla en la acera y el desvío del tráfico de gran tonelaje, para aumentar la seguridad de la zona.

Honi guztiari buruz galdetu genuen otsailaren 4ko batzordean eta zinegotzi ordezkariak adierazi zuen seinaleztapena, badena eta semaforoa jartzea izango direla Udalaren neurriak, baina ez ingurua oinezkoa bihurtzea eta trafikoa desbideratzea.

Preguntamos sobre todas estas cuestiones en la comisión del 4 de febrero, y la persona concejala delegada respondió que el Ayuntamiento adoptará las medidas de instalación de la señalización, del badén y del semáforo, pero que no peatonalizará el entorno ni desviará el tráfico.

Argi dago Udal Gobernuak hartu nahi dituen neurriek trafikoa arinduko dutela, baina eskola komunitatearen hitzetan, ez da nahikoa izango bertako ikasle, guraso eta langileen segurtasuna bermatzeko.

Es evidente que las medidas que pretende adoptar el Gobierno Municipal aliviarán el tráfico, pero, según la comunidad escolar, no será suficiente para garantizar la seguridad de sus alumnos y alumnas, padres y madres y trabajadores y trabajadoras.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Arantzazuko Ama eskolaren inguruari buruzko azterketa bat egin dezan, trafikoa Tranbia kaletik bideratzeko aukera eta

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un estudio sobre el entorno de la escuela Arantzazuko Ama, que incluya las posibilidades de

eskolaren aurrealdea oinezkoentzat bihurtzeko aukera barne hartzen dituena.

Donostian, 2022ko otsailaren 17an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

canalización del tráfico por la calle Tranvía y de peatonalización de la parte delantera de la escuela.

San Sebastián, 17 de febrero de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
Concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

7. eta 11. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 7 y n.º 11.

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Udaltzaingoko langileen egoerari buruzkoa.**

"Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación del personal de la Guardia Municipal.**

"Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Zerbitzu Orokorreko Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 14 de febrero de 2022.

JUSTIFIKAZIOA

Duela hilabete batzuetatik hona, Udaltzaingoko langileak, hainbat ekintza eta komunikaturen bidez, lan-baldintzak hobetzeko eskatzen ari dira. Haiek diotenez, langile egonkorren falta, atalaren zuzendaritza egiten ari den kudeaketa txarra eta hartu diren erabaki politikoak zuzeneko eragina izaten ari dira, aspaldi, haien lan-kalitatean. Eta, horren ondorioz, baita herritarrei eman nahi dieten zerbitzuaren kalitatean ere.

Batetik, Donostiako udaltzainek salatzen dute Arkautek osoki egindako hautaketa-prozesuen eta lan-poltsen ondorioak jasaten ari direla; udaltzainak joan eta etorri dabiltzala; batzuek oso denbora gutxi ematen dutela lanean Donostian; beste batzuek ez dutela inolako harremanik hiriarekin, edo aldi baterako etortzen direla lanera, euren bizilekutik gertu plaza bat aurkitzen duten arte...

Horrek guztiak zailtasun handiak dakartza Udaltzaingoaren lan taldea egonkortzeko orduan. Langile finkoek jasaten duten lan-gainkarga gero eta handiagoa da: “beteranoenak” etengabe aritu behar izaten zaizkie berriei lan-dinamikak, hiriaren errealitate propioak, kale-izendegia eta abar erakusten, eta horrek higadura pertsonala dakar. Izan ere, horietako asko, ikasi beharrekoa ikasi dutenean, joan egiten dira, eta berriz ere hasieratik hasi behar izaten da.

JUSTIFICACIÓN

El personal de la Guardia Municipal lleva varios meses reclamando, a través de diversas acciones y comunicados, la mejora de sus condiciones de trabajo. Dicen que la falta de personal estable, la mala gestión que está llevando a cabo la Dirección de la Sección y las decisiones políticas que se han tomado están influyendo directamente, y desde hace tiempo, en la calidad de su trabajo. Y, en consecuencia, también en la calidad del servicio que se quiere prestar a la ciudadanía.

Por un lado, los agentes de la Guardia Municipal de San Sebastián denuncian que están sufriendo las consecuencias de los procesos selectivos y bolsas de trabajo llevados a cabo enteramente por Arkaute; que los agentes de la Guardia Municipal andan de aquí para allí; que algunos trabajan muy poco tiempo en San Sebastián; otros no tienen ningún tipo de relación con la ciudad, o vienen a trabajar temporalmente hasta encontrar una plaza cerca de su domicilio...

Todo ello plantea serias dificultades a la hora de consolidar el equipo de trabajo de la Guardia Municipal. La sobrecarga de trabajo que sufren los trabajadores fijos es cada vez mayor: “Los más veteranos” tienen que estar continuamente enseñando a los nuevos y nuevas las dinámicas de trabajo, las realidades propias de la ciudad, el callejero, etc., con el consiguiente desgaste personal. Además, gran parte del personal nuevo, cuando ya han aprendido lo que hay que aprender, se van, y hay que empezar de nuevo desde el principio.

Ezegonkortasun-egoera horrek herritarrei ere eragiten die, udaltzain-dantza horrek zerbitzuaren kalitateari ere kalte egiten baitio. Izan ere, nola bermatuko du Udal Gobernu honek bikaintasuna herritarren arretan, udaltzain batzuk "erreta" eta beste asko Donostiatik joateko irrikan badaude?

Esta situación de inestabilidad afecta también a la ciudadanía, ya que este ir y venir de las y los agentes perjudica también la calidad del servicio. Y es que, ¿cómo va a garantizar este Gobierno Municipal la excelencia en la atención a la ciudadanía, si algunos guardias municipales están "quemados" y otros deseando de irse de Donostia?

Baina egoera hori, udal sindikatuen iritziz, hobetu liteke udal-kudeaketa egoki batekin, gutxienez Arkauteko lan-poltsaren desoreka konpentsatuta. Sindikatuetako ordezkarien arabera, egungo zuzendaritzaren kudeaketak ez die erantzuten Udaltzaingoko langileen beharrei; aitzitik, haien arazoak areagotu egien ditu, eta horrek zuzenean eragiten die haien lan-baldintzei.

Pero esta situación, a juicio de los sindicatos municipales, podría mejorarse con una adecuada gestión municipal, compensando, al menos, el desequilibrio de la bolsa de trabajo de Arkaute. La representación sindical sostiene que la gestión de la actual Dirección no responde a las necesidades del personal de la Guardia Municipal, sino que lo que hace es acrecentar sus problemas, lo cual afecta directamente a sus condiciones de trabajo.

Langileen arabera, zuzendaritzak eta Udal Gobernuak ez dute konponbide adosturik aurkitu nahi, eta horrek enkistatu egiten du langileen lan-eskubideen galera, pixkanaka-pixkanaka ikusten baitute hainbat erabaki arbitrariok, hala nola ordutegiarekin, ordu metatuekin, baimenekin eta oporrekin lotutakoek, eragina dutela haien bizitza pertsonalean eta familia-bizitzan.

Según el personal, la Dirección y el Gobierno Municipal no quieren encontrar una solución consensuada, lo que enquista la pérdida de derechos laborales de los trabajadores y trabajadoras, que poco a poco van viendo que decisiones arbitrarias −como las relacionadas con el horario, las horas acumuladas, los permisos y las vacaciones− afectan a su vida personal y familiar.

Udal Gobernuko delegatua batzordean interpelatu dugunean, sailaren beraren barne-komunikazioan hainbat hutsune daudela aitortu du. Eta, azken hilabeteetako testuinguruan, Arkauteko lan-poltsaren bidezko kontratazio sistemak eragin negatiboa izan duela langileen lan baldintzen eta ordu partzialak hartzeko orduan.

Cuando interpelamos a la persona delegada del Gobierno Municipal en la Comisión, reconoció que hay lagunas en la comunicación interna del propio Departamento. Y, en los últimos meses, el sistema de contratación a través de la bolsa de trabajo de Arkaute ha tenido un impacto negativo en las condiciones de trabajo y en el disfrute de las horas parciales del personal.

Alegia, zinegotzi delegatuak egoera azaltzeko arrazoi koiunturalak baino ez zituen azaldu: izan COVIDa, izan erretiroa, izan beste herri

Es decir, la persona concejala delegada solo expuso razones coyunturales para explicar la situación: el COVID, la jubilación, la gran

batzuetako langileen eskaria handia...

demanda de trabajadores de otras localidades

Harrigarria bada ere, eta beti batzordean emandako erantzunen arabera, udal gobernu honen erabaki politikoek –zerbitzuaren kalitatea babesteaz eta udaltzainen lan-eskubideak bermatzeko ardura izan beharko luketenak– zerikusi gutxi dute egungo lan-gatazkarekin.

Sorprendentemente, y siempre de acuerdo con las respuestas dadas en la Comisión, las decisiones políticas de este gobierno municipal, que deberían ser las encargadas de proteger la calidad del servicio y garantizar los derechos laborales de las y los guardias municipales, poco tienen que ver con el actual conflicto laboral.

Langileek hilabeteak daramatzate bizitza pertsonalean eragina duten murrizketak jasaten. Sailean egiten ari den kudeaketak zerbitzuaren kalitatean eta langileengan du eragina, eta bitartean, saileko arduradun politikoak langileek jasaten dituzten murrizketak onartu arren, ez du konponbide eraginkor eta berehalakorik ekarri; ezta langileen batzordearekin adostutako irtenbidea bilatzeko konpromisorik ere.

Los trabajadores y trabajadoras llevan meses sufriendo recortes que afectan a su vida personal. La gestión que se está llevando a cabo en el Departamento afecta a la calidad del servicio y a los trabajadores, mientras que el responsable político del Departamento, a pesar de reconocer las restricciones que sufren los trabajadores, no ha aportado ninguna solución efectiva e inmediata, ni ningún compromiso de buscar una solución consensuada con la Comisión de Personal.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen has dezala Langileen Batzordearekin lan-egutegi berri bat negoziatzeko prozesua akordio bat bilatzeko konpromisoarekin; eta, prozesu horrek irauten duen bitartean, aplikatu diezaiela Udaltzaingoko langileei 2020ko lan-egutegia, langileekin gatazkarik sortu ez duen azken ordutegia.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a iniciar cuanto antes el proceso de negociación de un nuevo calendario de trabajo con la Comisión de Personal, asumiendo el compromiso de llegar a un acuerdo, y a que, mientras dure dicho proceso, aplique al personal de la Guardia Municipal el calendario laboral del año 2020, último horario que no ha generado conflicto con el personal.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaltzaingoaren lan taldea behar bezala dimentsionatzea; jardunean dauden unitate guztietan beharrezkoak diren agenteak lehenbailehen kontratatzea eta prozesu horri esker, UMAC bezalako unitateak

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a dimensionar adecuadamente el equipo de trabajo de la Guardia Municipal; a contratar cuanto antes los agentes necesarios en todas las unidades en funcionamiento y a que este proceso permita la

berraktibatu ahal izatea; eta kontratazio-prozesu horrek irauten duen bitartean, Udaltzaingoaren egungo plantillari aplikatutako murrizketak bertan behera uztea.

Donostia, 2022ko otsailaren 18an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

reactivación de unidades como la UMAC, así como a suspender, durante este proceso de contratación, las restricciones aplicadas a la plantilla actual de la Guardia Municipal.

San Sebastián, 18 de febrero de 2022

Reyes Carrere Zabala,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

**II.2.11. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Udaltzaingoaren agenteen egoerari buruzkoa.**

"Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Marta Huarte Pañok, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, hil honetan ZERBITZU OROKORREN Batzordean Udaltzaingoko agenteen egoeraz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Langileen Batzordea gure Udal Taldearekin harremanetan jarri zen Udaltzaingoan diren arazoen berri emateko, eta, hala, zuzenean jarri ginen gu Udaleko langileen kolektibo horren ordezkariekin harremanetan. Eta haiek adierazi ziguten aspaldi luze honetan okertu egin direla haien lan baldintzak eta, beraz, ez daudela gustura.

Aurren-aurrena, jakinarazi ziguten aldebakarrez onartu duela lan egutegia Zuzendaritzak. Egin zituztela iazko irailean gai hori aztertzeko bilera batzuk, eta sindikatuen ordezkariek egindako proposamena ere aztertu zela (Udaltzaingoko langileen lan-premiekin hobeto ezkontzen den egutegia izatea, eta abar), baina ez zela

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la situación de los agentes de la Guardia Municipal.**

"Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES del presente mes, relativa a la situación de los agentes de la Guardia Municipal.

JUSTIFICACIÓN

La Comisión de Personal se puso en contacto con nuestro Grupo Municipal para hacernos llegar la problemática que afecta a la Guardia Municipal, poniéndonos directamente en contacto con representantes de este colectivo de trabajadores del Ayuntamiento. Estos, nos trasladaron su malestar por el empeoramiento de sus condiciones laborales, situación ésta, que se está dilatando en el tiempo.

En primer lugar, nos informaron que la Dirección ha aprobado el calendario de trabajo de manera unilateral. Si bien en el mes de septiembre del pasado año se celebraron varias reuniones para tratar este tema, incluyéndose la propuesta aportada por los representantes sindicales, dirigidas a

benetako negoziazio prozesurik izan eta Zuzendarik ez zuela erakutsi auzi egoera gainditzeko moduko konponbideak izateko jarrerarik. Udaltzaingoaren Zuzendaritzak berak batere ez mugitzeko jarrera hartu zuen, negoziatzeko borondatea adierazi eta proposamenak Langileen Batzordearekin adosten saiatu beharrean. Beraz, ez dira negoziazio prozesuak errespetatzen, eta agenteek ikusten dute okertzen ari direla haien lan baldintzak.

